

## Ricardo Ortega da EBren alkategaia

Zinegotziak ildo eta erronka nagusiak jakinarazi zituen ostiralean

Maiatzak 22ko udal hauteskundeetan Lasarte-Orian aurkeztuko diren alkategaiak ezagutarazten ari dira eta aurreko ostiralean Ezker Batuak aurkeztu zuen berea. Ricardo Ortega zinegotzia izango da zerrendaburua eta berarekin batera Gema Peña, Josean Cuesta, Maria Eugenia Aizpuru eta David Franco joango dira lehenengo tokietan.

Hauekin batera, Mikel Izagirre, Urrietako alkate eta Gipuzkoako Batzar Nagusietarako EBren zerrenda burua izan zen aurkezpenean. Ortegak "beste sasi ezkerreko alderdien aurrean alternatiba" gisa aurkeztu zuen bere zerrenda, euskal ezker federalista, "kasualitatez errepublikaren egunean".

Aurten EB bakarrik aurkeztu bada ere itxaropentsu agertu zen berriro Udalean izateko eta bere programaren ildo nagusiak jakinarazi zituen, bes-



Gema Peña, Ricardo Ortega eta Mikel Izagirre aurkezpenean.

teak beste, zerbitzu sozialak sendotzea eta lanpostuen sorrera bultzatzea ingurugiroaren eta energia berriztagarrien arloetan lan eginaz, eta honekin batera herritarren parte hartzea ziurtatzeko bideak jorratzea batez ere udal aurrekontuak egiterakoan.

Gainera, herritarren osasunaren eta ingurugiroaren defentsan ahalegin berezia egingo dutela esan zuen, "denek hitz egiten duten garapen iraunkorraz, baina gero kontraesan handiak dituzte" eta konkretuki hondakinen kudeaketan Atez Ateko bilketa bultzatuko duela adierazi zuen.

Mikel Izagirrek besteak beste EBren politikaren ildo orokorrak azaldu eta Ricardo Ortegak Sanmarkoko mankomunitatean egindako lana goraipatu zuen. Gema Peñak Ezker Batuaren baitan herritarrekin zuzenean lan egiteko eta hauen beharrak ezagutzeko bideak azaldu zituen. •

Atzo amaitu zen 17. Korrika, bi urte itxaron beharko dira hurrengorako

Jende ugari bildu zen atz 17. Korrikan parte hartzeko. Guzti honen berri duzue gaurko zenbaki honetan. /4-5 ORRIALDEAK

TXINTXARRIREN hurrengo zenbakia maiatzaren 2an argitarauko dugu

## Manifestazio jendetsua bizi arteko kartzela zigorraren aurka

Ostiral arratsaldean hainbat lagunek herriko kaleak zeharkatu zituzten Lasarte-Oriako hiru presok, Ina Orotegi, Mitxel Turrientes eta Kepa Rezabalek aurten kartzela 25 urte beteko dituztela gogoratu eta bizi arteko kartzela zigorra ezarri nahi zaiela salatzeko. Hain juxtu "Biziarteko zigorrik ez, aski da" pankartaren atzean Zumaburutik itzulia egin eta Hipodromo kalean amaitu zen protesta. •



Herriko preso politikoen senideak joan ziren ostiral arratsaldean egin zen manifestazioaren buruan.

KIROLA/2

Landaberri BHI eta Ane Galardi Gipuzkoako txapelkun

UDALA/3

Hiribusaren erregulatzeko hainbat pausu eman ziren udalbatzarrean

KULTURA/3

Maketa lehiaketan izena emateko epea zabaldu da

# Udak

# Txokoak 2011



Izena emateko azken eguna maiatzaren 19a **Ttakun** Geltoki kalea 4. [www.ttakun.com](http://www.ttakun.com)



## Borrokan ere dominak eskuratu dituzte judokek

LOKEko Leire Zubizarreta Estatuko txapeldun berria da

**L**OKEko judoko mutil eta neskek berriro ere domina eta trofeo kopurua handitu dute.

Leire Zubizarretak borroko Espainiako titulua eskuratu zuen, apirilaren 2 eta 3an, Granadan burutu zen Espainiako junior eta infantil mailako borroka libre olimpi-koko txapelketan.

Baina ez zen hori taldeak eskuratutako domina bakarra izan. Amaia Curiel bigarren postua eta Fermin Baldak infantil mailan brontzezkoa lortu baitzuten. Hauetaz gain, Mario eta Oscar Garrido anaiak balkoitzak bere mailan bosgarren postua lortu zuten.

Gauzak honela, entrenatzaileak azaldu digunez, "Leire eta Amaia Estatuko selekzioak Europako txapelketa prestatzeko Murtzian

egingo duen konzentrazioan egongo dira".

### Euskadiko txapelketa

Bestalde, apirilaren 09an, Euskadiko 23 urte azpiko txapelketan Mario Garrido eta Esteban Martinezek brontzezko domina lortu zuten "txapelketa txukuna eta polita egiten".

### Sanbo txapelketa

Taldeko txikiei dagokien, alebin eta infantil mailako Gipuzkoako sanbo txapelketa izan zuten apirilaren 2an.

Taldeko harrobiak ere emaitza onak lortu zituen: Jorge Revueltak garaipena lortu zuen; Iñaki Fernandez, Jon Ibisate eta Beñat Arizetak bigarren postua eskuratu zuten, Asier Zubizarretak brontzezko domina. •

## Ane Galardi eta Landaberri BHI Gipuzkoako txapeldun

**A**ste hauetan, Gipuzkoako eskolarteko atletismoko txapelketak jokatzen ari dira eta Landaberriko eta Sasotako ikastetxeetako gaztetxoak hauetan lehiatzen ari dira.

Amaia Andres eta Oscar Goikoetxeak entrenatutako gaztetxoak lan ona egiten ari dira eta aipatzekoa da Ane Galardiren lana.

Anek Hernanin apirilaren 3an, Gipuzkoako bi titulu eskuratu zituen bata 80 metro proban eta bestea luzera jauzian.

Honetaz gain, infantil mailako Landaberri BHI nesken taldea ere, apirilaren 10ean Ordizian egindako jardunaldian garaipena lortu 58 puntu eginez eta Gipuzkoako txapeldun berriak dira.

Baina oraindik domina gehiago lortu ditzakete gaztetxoek, izan ere, Gipuzkoako txapelketako bi jardunaldi geratzen baitira.

### Pili Bodegas garaile

Bestalde, apirilaren 10ean, Donostiako ARCCO Hiri krosean Pili Bodegas izan zen garaile emakumezkoen mailan



Irudian taldea entrenatzaileekin eta sariarekin.

Arg.: Isa Fdez. de Agirre.

eta gizonezkoetan, Raul Gomez zortzigarren izan zen.

500 korrikalarik parte hartu zuten eta horien artean, herritar talde bat zegoen. Hauek izan ziren haien denborak: Juan Jose Lopez, 34:59; Mari Carmen Olasso, 37:49; Javier Sanchez, 39:31 eta Ana Iturriz, 46:22.

### Donostia-Hondarribi

Egun berean, Donostia-Hondarribi Talaiak bidea mendi lasterketa burutu zen eta honetan ere Lasarte-Oriako korrikalariak egon ziren, besteak beste, Ostarreko atletismo taldekoak.

Eta gainera, herritarretako batzuk lehenengoan artean ibili ziren, Andoni Illarramendik senior mailan eta Julen Ollokiegik veterano mailan laugarren postua eskuratu baitzuten.

Beste herritarrek hauek izan ziren: Ramon Altuna, 02:50:02; Juan Mari Marcos, 02:57:00; Toño Perez, 02:59:49; Markos Bujanda, 03:08:43; Eduardo Ormazabal, 03:14:54; Jose Ramon Mendizabal, 03:18:31; Juan Mari Sarobe, 03:21:52; Jon Navascues, 03:28:36; Peio Fadrique, 03:40:16; Mikel Ormazabal, 03:40:41 eta Iñigo



Endika Gartzia duatloiko txirrinda zatia amaizten.

Arg.: Festa.com

## Endika Gartzia Gipuzkoako txapeldun.

Azkoitiako duatloiren hamabigarren edizioa ospatu zen apirilaren 10ean eta proban honen barruan, gainera, Gipuzkoako duatloi motz txapelketa ere jokatu zen. 159 gizonezko eta 17 emakumezko parte hartu zuten proban. Eta 8km lasterka, 36 kilometro txirrindan eta beste 4 kilometro korrika egin ostean, Endika Gartzia herritarra lehengo iritsi zen helmugara. •

## O. Lizaso Gipuzkoako txapeldunorde

**T**eniseko infantil mailako Gipuzkoako txapelketa Manuel Alonso oroimezkoa martxoaren 28tik apirilaren 3ra jokatu zen Txingudy tenis klubean eta Oihane Lizaso herritarrek Gipuzkoako bigarren postua eskuratu zuen, finalean Alicia Gonzalezen aurka erori eta gero. Ez da lehenengo aldia txapeldun orde dela, iaz ere alebin mailan postu berdina lortu baitzuen. Orain, maiatzaren 14tik 22ra Bizkaian jokatuko den Euskadiko txapelketa prestatzen ari da. •



Oihane Lizaso, ezkerretik hasita lehena, Gipuzkoako txapenordearen trofeoarekin.



# Bideo Lagunak

BEGIRATU GURE ESKAINTZAK!

Inguruko erakusketarik onena!

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134  
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

eskaerak

Betiko zerbitzua gure aholkularitza onenarekin

# Hiribusa erregulatzeko pausuak

**A**pirilaren 12an, ostira-lean ospatu zen ohiz kanpoko udalbatzarrean Hiribusaren esperientzia pilotoarean ondoren, Hiriko Garraio Zerbitzu Publiko Erregulararen araudi erregulatzailerantzeko pausuak eman ziren; aurrera jarraituko du, Udalbatzarrean parte hartutako 14 zinegotzieren onarpenarekin. Bestetik esperientzia pilotoa justifikatzeko memoria PSE-EEren 7 botoei esker bakarrik onartu zen. Plataforma, Hamaika1, EAJ eta Ezker Abertzaleak abstentziora jo zuten.

Esperientzia pilotok herrian zegoen beharra eta bideragarritasuna erakutsi duela aipatu zuten PSE-EE alderditik "orain garraio-zerbitzu honek sortuko duen defizita aztertu eta gain hartu dezakegun aztertu beharko dugu" gaineratu zuten.

Bestetik, oposizio alderdiek abstentziorako bidea hartu zuten arrazoi batengatik "badakigu proiektu defizitariola dela, horregatik martxan jarri baino lehen gauzak ondo argitu behar direla uste dugu" adierazi zuen Ana Prieto LOPHko zinegotziaz. Oposizio alderdiak argi daukate hiri-busa ez dutela oztopatuko "argi izan gure botoarekin ez dugula autobusa arriskuan



Estitxu Alkortak plenoa utzi zuen Mugika eta alkatearekin izandako ika-mikagatik.

jarriko, baina proiektuari buruzko erantzunak behar ditugu" azaldu zuen Ezker Abertzaleko Txanpi Baztarrak. "Formula egokiena bilatu behar da, ondo aztertu eta zentzugabekeria alde batera utzi" adierazi zuen Estitxu Alkortak EAJko kideak.

## Alkortak plenoa utzi

Iñaki Mugika, Jesus Zaballos eta Estitxu Alkortaren artean eztabaida bizia sortu zen gai honen inguruan eta azkenean Alkortak plenoa uztea erabaki zuten.

## Hemendik aurrera

Hiriko Garraio Zerbitzua sor-

tzeko prozesua martxan jarri da beraz. Orain kontu hartzailearen eskutik pasa beharko da proiektua onarpena eskuratzeko eta orduan plenoan bozkatu eta onartu beharko da lehiaketa publikora aterata baino lehen.

## Ahobatez onartu

Eguneko beste gai-zerrenda ahobatez onartu ziren plenoan. Bai A-1 Okendo HiEaren Barruko Erreformarako Plan Bereziaren Aldaketa Puntualean eta bai A6 Michelin Teko Hirigintzako Interbentziorako Eremuaren Xehetasunezko Estudioaren behin betiko onespena. •

## SUKALDARITZA

### Sukaldean trebatzeko aukera

Joxin Olasagastiren eskutik sukaldaritza ikastaroa eskainiko du Ttakun Elkarteak maiatzaren 3, 5, 10 eta 12an Arrieskalletan. Asteartetan 19:00etan izango dira saioak eta ostegunetan 16:00etan. Prezioa 40 eurokoa izango da Ttakuneko bazkide ez direnentzat eta 37 bazkideentzat. Izena emateko azken eguna apirilaren 29a izango da eta gehienez 12 ikasle onartuko dira.

## AURKEZPENA

### Gaueko Itzalak diska aurkeztuko du

Apirilaren 20an, asteazkenean, Gaueko Itzalak herriko taldeak diska aurkeztuko du Flor de Caña tabernan (garai bateko Zulo). Sarrera 5 eurokoa izango da eta diska jasoko dute opari.

## DANBORRADA

### Danborradan parte hartzeko aukera

San Pedro jaietako Haurren Danborrada uztailaren 2an, izango da goizez. Bertan parte hartzeko izen ematea apirilaren 26an zabalduko da maiatzaren 6an itxi. Izena emateko jo Gazteen Informaziorako Bulegora, Manuel Lekuona kultur etxean, 11:00-13:00 eta 16:00-19:00.

## LEHIAKETA

### IV. Musika Maketen lehiaketa martxan

Udalak antolatzen duen Musika Maketen lehiaketan parte hartzeko apirilaren 18tik maiatzaren 13ra bitartean bidali behar dira maketak (mp3 formatoan) helbide elektronikoa honetara: maketak@lasarte-oria.org. Maiatzaren 13tik aurrera ez dira maketarik onartuko.

## BILKETA

### Bilketa asteazken goizean egingo da

Datorren osteguna, apirilak 21, Ostegun Santua eta jai eguna denez, Lasarte-Oriako Udalak herritarrei jakinarazi nahi die altzari eta tresna bilketa apirilaren 20ko goiz partean burutuko dela. Altzariak gertuen duten puntuan utzi behar dira astearte iluntzeko 21:00etatik aurrera, asteazkeneko 6:30ak bitartean.

# Ttakunek lehendakari berria

**A**ldaketa garaia iritsi da baita ere Ttakun Kultur Elkartera. 2003. urtetik hona lehendakari bezala egondako Mari Jose Eizmedik kargua utzi eta bere ordezt Tomas Arrizabalaga sartu da.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Mari Joseri urte guzti hauean burututako lan guztiagatik eta era berean Tomas ongi etorria eman. Urte askotarako izan dadila.



Tomas Arrizabalaga lehendakari berria eta Mari Jose Eizmendi, lehendakari ohia.

# Bitxien ikastaroa

Ttakun Elkarteak bitxien ikastaroa antolatu du. Olga Blancoren eskutik maiatzaren 6tik hasita, ostiraletan Bitxietan trebatzeko aukera egongo da.

Maiatzaren 6an, 13, 20 eta 27an, arratsaldeko 18:00etatik eta 20:00ak bitartean zuren bitxi-ontzia betetzeko aukera. Prezioa 20 eurokoa izango da, 18 Ttakuneko bazkideentzat. Izen emateko azken eguna maiatzaren 4an izango da eta gehienez 12 lagun onartuko dira ikastaroan.

## Programazio zabala

Lau saio ezberdin proposatzen dituzte. Lehenengoan alambre hariarekin belarritakoak eta eskumuturrekoak landuko dira. Bigarren saioan alambre hariarekin eraztunak eta belarritakoak. Hirugarrenean brotzeak zaharberrituko dira eta azken saioan, ilerako zinta eta diademak sortuko dira kamiseta zaharretatik abiatuta. Interesatuak, pasa Ttakunetik edo 943 366858 telefonora deitu. •

**ADURIZ DE LASARTE S.A**  
Solomoa baratxuritan  
Odolkia- Solomo ontzutua Etxeko txorizoa  
Tripakiak- Saltxitxak Basurde burua  
Txistorra Baserri pateak

**BERTAKO FABRIKAZIOA**  
Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451  
Lasarte-Oria

**ELEKTRIZITATEA**  
**ARREGUI**

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA



Arg.: X. Elizegi

LABekoek hartu zieten lekukoa Zubietakoel.



Arg.: X. Elizegi

Ostadarrekin batera jende ugari bildu zen erdigunean.



Goizeko 7etarako jende ugari ikusi zen kalean Korrika noiz helduko zain. Aurten ere Lasarte-Oriako herriak parte hartze zabalza izan du Korrikan!



Arg.: X. Elizegi

Pupuk eta Lorek lehenengo aldiz hartu zuten parte Korrikan!



Arg.: X. Elizegi

Kukukokoek goxo-goxo eraman zuten lekukoa.



Arg.: X. Elizegi

Sorgin Jaiko gazteenariokoek eraman zuten lekukoa.



Arg.: X. Elizegi

Elkarte Gastronomikoek ere hartu zuten parte.

## Giro zoragarria goiz-goizetik

■ Jende ugari bildu zen atzo goizean Korrika Nagusiko 17. edizioan parte hartzeko ■ Korrika egin ondoren, txokolate beroa dastatu zuten korrikalariarik

### TXINTXARRI

**M**unteri AEK euskaltegi-ko arduradunak pozik agertu dira aurten go edizioko parte hartzearekin, eta eskerak eman nahi izan diote herriari lerro hauen bitartez:

Mila esker!  
Mañatu, ikasi, ari, ...euskalari!  
Lasarte-Oria euskalari bezte zaigu beste behin ere. Pausoz pauso, hitzez hitz, euskalari euskalari.

Hau guztia ez da gutxi gure herria berreuskalduntzeko orduan. Urratsa hau izan dadila beste baten aitakia, ondoren helmugara iritsi eta euskarak behar duen lekua izan dezan.  
Hungigarria, indartsua,

kutsakorra,.... izenondo guzti hauek egosten zaizkio KORRIKA-ri baina ez lizateke ezer izango jendearen parte hartzerik gabe. Eta honetan gure herria ezin hobea da.

Idazki honen bitartez Lasarte-Oriako dendarri, tabernari, bertsolari, aldiakari, musikari, elkarte, talde, dantzari, antzezle, lantegi, abeslari, begirale, ikastetxe, argazkilarri, korrikalari, kazetari, bideo hartzaile, herriarrikak... hau da herriko euskalari guztiei eskerrik euskaldun eta goxoan bidali nahi dizkizuegu KORRIKA eta AEK-ren izenean.

Mila esker!



Arg.: X. Elizegi

Patinatzaileak izan ziren azkenak herrian lekukoa eramaten.

17. Korrikako arguzki gehiago [www.txintxarri.info](http://www.txintxarri.info) web atarian.



Arg.: X. Elizegi

Zabaleta Elkartekoak ere fin ibili ziren lasterkan.



Arg.: X. Elizegi

Landaberri Guraso Elkarlekoen protagonista, bakia.



Arg.: X. Elizegi

Tripontzi jangelakoak aldapa gora, aldapa behera ibili ziren.



Arg.: X. Elizegi

Lasarte-Oriako Udaleko lekukoa alkateak eraman zuen.



Arg.: X. Elizegi

Herriko bi ikastetxeek ere jende asko bildu zuten.



Arg.: X. Elizegi

Antza eta Argiaren lekukoa eramaten elegante ibili ziren.



Arg.: X. Elizegi

Harro eta pozik eraman zuten lekukoa Munteriko ikasleek.



Erketekin batera errotondari buelta eta Errekalderuntz!



Arg.: X. Elizegi

Aldapa behera eta gero gora ibili ziren Ezker Abertzalekoak.



Arg.: X. Elizegi

Umoretsu eta sasoiako Takunekin batera aldapa gora!

**ANAIAK**  
**JANTZI-DENDA**  
40 URTE ZUEKIN !!  
Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 362586

**MATE**  
ESTETIKAKO ARETOA  
Foto depilazioa arri pultsatuarekin  
• Era ezberdinetako depilazioak  
• Aurpegiko tratamenduak  
• Gorpuzteko tratamenduak  
• Makillajeak  
• Beste hainbat zerbitzu  
Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

**Riojanos**  
Erretegia  
Afariak, bazkariak, pintxoak, ...  
Eta orain .....  
Igandeetan ere irekita  
Uistin kalea 13 • Tel.: 943 362720



Erromeria Sagardotegi plazan egin zen eta, eguraldia lagun, izugarritzko giroa egon zen bertan.

### Ekitaldi ugari antolatu ziren Korrikaren bezperan

Goizean Ostadarrek antolatuta haurrentzako olinpiadak egin zituzten Andatza plazan, eta ia ordu berean, Xumelako eta Albokako kideak herriko hainbat lekutan abesten aritu ziren. Kukukako antzerki taldeak ere kale animazioarekin jardun zen ingurukoak girotzen eta alaitzen. Amaluz eskolakoak ere kaleak alaitu

zituzten musikarekin.

Eguerdian berriz, elkarteek prestatutako babarrun jana egin zen Andatza. Ane Labakia eta Asier Azpiroz bertsolarien saioaren ostean, Mikel Bermejok bakarriketa eskaini zuen.

Arratsaldean Kukukako dantzako ikasleak desfilea egin zuten eta Sagardotegi

plazan amaitu zuten, erromeria baitzegoen. Erromeriaren ostean, Erketzeko eta beste hainbat dantzarik muxikoak dantzatzan aritu ziren.

Gauean berriz, Jalgin bakarriketen txanda izan zen, bertan Mikel Bermejo, Mailu Arruti, Ione Gorrostazu eta Olatz Etxeberriak eskaini zituzten saioak. •



Kukukako clownek azkenean alta eman zioten gaixoari.



Alboka abesbatzak emanaldi polita eskaini zuten bazkaldu aurretik.



Kukukako dantzariek sasoiko daudela erakutsi zuten.



Ane Labakak eta Zubieta mutil guapoak, Asier Azpirozek giro ederra jarri zuten bazkalostean. Gainera, iluntzean Anek Osinalde sarian parte hartu eta txapela eskuratu zuen. Zorionak!



Barre algarra ederrak egin zituzten Jalgin bakarriketak entzutera joandakoek.

# Maite

# B ETELU



Aralar plaza 4 behea • Lasarte-Oria  
Tel.: 943 364886 • Faxa: 943 372117

- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria**
- zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen**
- administrazioa**



Egunero

**Erakusketa**

ESTUDIO DEL PINTOR AKADEMIKOKO IKASLEEN erakusketa ikusgai. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara



**Erakusketa**

BI LEIHO argazki erakusketa ikusgai. Lanak *Mikel Olaiz* eta *Naike Zumeta* herritarrenak dira. Jalgi kafe-antokian, egun osoan zehar.



*El Gran Vazquez kulturetxean*

EL GRAN VAZQUEZ, Manuel Vazquez komikigile famatuari buruzko filma ikusgai Okendo Zinema Taldearen eskutik.

OSTEGUNA 28  
KULTURETXEAN 21:30EAN  
SARRERA, 4, 20 EURO, GAZTELANIAZ

**Aste Santuko Lasarte-Oriako elizkizunak**

Ostegun Santua, apirilak 21

**17:30ean** Brigitarren komentuko kaperan Meza Santua ospatuko da. ELEBIETAN

**19:00etan** Arantzazuko amaren elizan Meza Santua ospatuko da. EUSKARAZ

**19:00etan** San Pedro elizan Meza Santua ospatuko da. GAZTELERAZ

**22:00etan** Brigitarren komentuko kaperan Ordu Santua. ELEBIETAN

Ostiral Santua, apirilak 22

**8:00etan** San Pedroko eliztarrek Gurutze bidea egingo dute Kalbario bidean. ELEBIETAN

**10:00etan** Arantzazuko amaren elizakoek Gurutze bidea egingo dute Azkorte-ko ermitara.

**11:00etan** Brigitarren komentuko kaperan Gurutze bidea egingo da. ELEBIETAN

**16:30ean** Brigitarren komentuko kaperan Pasioa antzetzuko da. ELEBIETAN

**18:00etan** San Pedro elizan Pasioa antzetzuko da. EUSKARAZ

**18:00etan** Arantzazuko amaren elizan Pasioa antzetzuko da. GAZTELERAZ

Larunbat Santua, apirilak 23

**19:00ean** Brigitarren komentuko kaperan Bazko gaubela egingo da. ELEBIETAN

**21:00ean** Arantzazuko amaren elizan Bazko gaubela egingo da. ELEBIETAN

**Eskutitzak**

**Lasarte-Oriako kultura ondarea eta beronen kudeaketa (2)**

Bestetik, egungo textuinguru ekonomikoak behartuta, kultura jarduerarako aurrekusi-ta dagoen kopurua asko murriztu den heinean, espazio hau herriko eragileekin betetzea pentsatu dute, ihauterietan edota festetako musika lehiaketan ematen diren adibideei jarraikiz; alegia, herriko talde batzuek beraiei iristen ez zaaien eremu bat noski dohan bete, dagoen dirua beraiek nahi duten moduan kudeatze aldera.

Beraz, egun, herrian ematen ari den fenomeno honek oso kezkatuta ditu lasarten lanean diharduten eragileak. Finean, diru kontuetaz haratago Kultura ulertzeko bi eredu argi eta garbiren arteko talkan baitago arazoaren muina. Udaletxeak urtetan zehar kontsumorako kultura antzu, garesti eta arrotzaren aldeko hautua egin duen bitartean, herriko eragileek Kultura herriko, partehartzaile eta xume baina kalitatezkoaren aldeko bidea jorratu du. Eta hori nabaria da herrian, astero-astero programatu ohi den ekitaldi andana da honen adibiderik garbiena. Udaletxea, eragile herrikoien indarraz jabetuta bere onerako erabiltzen saiatu da, baina ez da konturatu, prezski urteetan erakutsitako kontsumorako kultura eredu antzu horri aurre egiteko alternatiba gisa sortu direla hainbeste kultura adierazpen herriaren aldetik, eta berauek ere badutela zer esana hain agerian geratu den Udaltxearen 180 graduko gezurrezko aldaketa honen aurrean.

Kultura herrikoiei eta partehartzailearen aldeko hautu argia egiten du ezker abertzaleak, berau osatzen duten eragileekin elkarlanean aritzeko prestutasuna agertzen duelarik. Herritarron kultura ondarea ez baita izen handi eta eskeintza garestietan ebaluatzen, herriko eragileek agertzen duten gogo eta lanerako determinazioan baizik.

Lasarte-Oriako Ezker Abertzaleak

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI

aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

**Oharrak**

**Lourdesera bidaia**

Maria Auxiliadora elkarteak, ohitura denez, Lourdesera txangoa antolatu du. Bidaia maiatzaren 8an izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 943 363 675 edo 943 360 042 telefono zenbakietara.

**Ostalarien bilera**

Lasarte-Oriako ostalarien elkarteak sortzeko asmoz, maiatzaren 10ean, gaueko 21:30ean Buenetxea tabernan bilera bat antolatu dute herriko hainbat ostalariek. Antolatzailerak herriko ostalariei gogokoak izateko bilera horretara joateko gonbitea luzatzen die.

**Odol ateratzea**

Hilabetero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan apirilaren 26an asteartea arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitezte, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

**Etixeraten elkarretaratzea**

Hileko azken ostiralero bezala, apirilaren 29an Lasarte-Oriako Etxeratek kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei bertan parte hartu dezaten.

**Gigantak dantzatzeko ikastaroa**

Gigantak dantzatzeko ikasteko ikastaroa antolatu du Arriekalletea elkarteak. Parte hartu nahi duenak, kulturetxera azaltzea besterik ez du asteazkenetan 20:00etatik 21:00etara. Informazio gehiago arriekalletea@gmail.com helbidean.

**Udalekuetan begirale izateko**

Ttakunek Udalaren laguntzaz antolatzen dituen Udako Txokoak egitasmoan edo Mendigorrian eta Kanpaldietan begirale izateko aukera dute

nahi duten gazteek.

Udalekuak zutailan eta abuztuan izango dira. Interesa dutenek zenbait bide dituzte izena emateko: mezu bat bidali dezakete aisia@ttakun.com helbidera edo Ttakuneko bulegotik, Geltoki kale 4 zenbakitik, pasa daitezke.

**Marrakzi eta pintura eskola**

Lasarte-Oriako Auzo Elkarrekin jakin arazten du, Aste Santuan apirilaren 22 eta 23an ez dela marrakzi eta pinturako klaserik egongo Manuel Lekuona kultur etxea itxita dagoelako.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
txintxarri@ttakun.com  
txintxarri@txintxarri.info  
www.txintxarri.info

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.




Hipodromo etorbidea 3  
Lasarte-Oria  
Tel.: 943 366176  
labegoxo@euskalnet.net

Okindegia  
Gozotegia  
Kafetegia

Etorri gurekin

kafea hartzera  
gosaltzera

.....



DENA BERTAN EGINA

BONBOIAK  
OGIA  
PASATAK  
OPILAK  
PASTELAK

...



**OTEGI**

SAGARDOTEGIA  
SOLLAENEA BASERRIA



- Larunbata eta jai eguerditan irekita
- Asteartetik larunbatera gauero irekita

Zabaleta auzoa ■ LASARTE-ORIA ■ Tel.: 943 365029



**jaiji**  
KAFE-ANTZOKIA



kontzertuak  
antzerkiak

giro paregabea pintxo goxoekin

GELTOKI KALEA 4 BEHEA  
LASARTE-ORIA • Tel.: 943 377024

